TABAKALERA

arteleku

# EGIN-ZALE-AK!



www.tabakalera.eu

www.arteleku.net



www.tabakalera.eu
www.arteleku.net

Fabrikazioa hiritarren esku
Semana de la fabricación

ARTISAU DIGITALAK
ARTESANOS DIGITALES

EGINZA-
LEAK!

Urriak 18 Octubre
Azaroak 16 Noviembre

TABAKALERA

# EGINZALEAK!
# ARTISAU DIGITALAK
# ARTESANOS DIGITALES

## Fabrikazioa hiritarren esku
## Semana de la fabricación

**Urriak 18** Octubre
**Azaroak 16** Noviembre



**+ info:**
www.hirikilabs.tabakalera.eu
www.arteleku.net
www.tabakalera.eu

TABAKALERA

**EGOITZAK / SEDES**

**Hirikilabs**
Easo 41-43, 1°
(Suhiltzaileen Egoitza Zaharra / Antiguo Edificio de Bomberos)

**Koldo Mitxelena Kulturunea**
Urdaneta, 9

**Arteleku**
Kristobaldegi, 14 Loiola Auzoa



**Laguntzaileak** / Colaboran:

*Eginzaleak! Artisau digitalak - Fabrikazioa hiritarren esku* izenburupean bildu ditugun jarduerek fabrikazio digitala, DIY erako software/hardwarea eta sareei eta ekoizpen eta hedapen modu berriei esker biziberritu diren artisautza teknika eta prozesuak dituzte ardatz.

Sortzaileengandik hasi eta hiritar guztienganaino, publiko mota ezberdinei zuzendutako hainbat jarduera izango dira aste honetan. Ekimen honen helburu nagusia kostu txikiko teknologiak erabiltzen dituzten praktika eta proiektuak, ekoizpen eta distribuzio modu berrietan txertatuta daudenak eta antzinako artisauen ereduaren jarraitzaile direnak, hau da, material eta tekniken ezagutza, eta "egitearen" zaletasuna aldarrikatzen dutenak ikusaraztea da.

Jarduera hauek Arteleku eta Tabakalerako laborategiek (Hirikilabs proiektuaren bitartez) elkarlanean eraiki nahi duten lan eremua ezartzen dute, gai komunak ikuspegi sortzaile, ikertzaile, sozial eta hiritar batetik jorratzeko asmoa duena.

*Eginzaleak! Artesanos digitales - Semana de la fabricación* engloba una serie de actividades en torno a la fabricación digital, el software/hardware DIY, y la recuperación de los procesos y técnicas artesanales que cobran nueva vida a través de los nuevos modos de producción y distribución digital y de las redes.

Las distintas actividades de la semana, visibilizan y acercan a diferentes públicos - del ciudadano al creador - toda una serie de prácticas y proyectos que utilizan tecnologías de bajo coste, operan bajo nuevos paradigmas de fabricación y distribución, y reivindican modelos artesanales anteriores basados en el conocimiento de materiales, la técnica y el gusto por "hacer".

Esta serie de actividades establecen un marco de trabajo conjunto entre los laboratorios de Arteleku y Tabakalera (a través del proyecto Hirikilabs) para trabajar temáticas comunes desde perspectivas creativas, sociales, ciudadanas y de investigación.

TABAKALERA

Erakustaldia / Muestra

## 18

**URRIA/OCTUBRE,** 16:00 - 20:00

**Ekoizpen digitala guztiontzat**
**¿Qué es la fabricación digital?**
Koldo Mitxelena Kulturunea - Atondoa/Hall
Gonbidatuak/Invitados: Arquimaña

Fabrikazio digitala eta bereziki kostu txikiko inpresio digitala objektuak sortu eta banatzeko eredu berri bat da. Egunerokotasunarekin lotutako hainbat objektu erakutsiko dira, hala nola, aulkiak, lanparak, etxeko hornidurak eta dekoraziorako objektuak, eta hiru dimentsiotako inprimatze prozesua osorik ikusteko aukera izango da bertan, baita beste sorpresatxoren bat ere.

La fabricación digital, y en especial la impresión digital a bajo coste, se ha convertido en un nuevo modelo de creación y distribución de objetos. Se mostrarán diversos objetos cotidianos tales como sillas, lámparas, menaje, broches y objetos de decoración y podrá verse todo el proceso de impresión en tres dimensiones in-situ, y alguna que otra sorpresa más.

Lantegia / Taller

## 21/22

**URRIA/OCTUBRE,** 10:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00

**Fabrikazio digitala / Harria, Pixela, Plastikoa, Harria**
**Fabricación Digital / Piedra, Pixel, Plástico, Piedra**
Arteleku
Gonbidatuak/Invitados: Abelardo Gil-Fournier, Dario Urzay
Izenematea/Inscripción: www.arteleku.net

Lantegi hau ikerketa eta hausnarketa eremu bat da. Objektu fisikoak digitalizatzeaz eta objektu digitalak materia bihurtzeaz jardungo da.

Este taller es un espacio de investigación y reflexión sobre procesos de digitalización de objetos físicos y materialización de objetos digitales.

Lantegia / Taller

## 22/23/24

**URRIA/OCTUBRE,** 15:30 - 19:30

**Altzarien diseinua fabrikazio digitalaren teknikak erabiliz: lanparak**
**Diseño de mobiliario con técnicas de fabricación digital: lámparas**
Hirikilabs
Gonbidatuak/Invitados: Raquel Ares e Iñaki Albistur (Arquimaña)
Izenematea/Inscripción: www.tabakalera.eu



Lantegi honetan lanparak eta argia egiten duten objektuak diseinatuko ditugu birziklatutako materialak edo erabilerarik ez duten ohiko objektuak erabiliz. Horretarako inprimaketa digitala, laser mozketa eta fresatzeko makina erabiliko ditugu.

Durante el taller diseñaremos lámparas y objetos luminosos partiendo de elementos de uso común, reciclados o en desuso y nos ayudaremos de las tecnologías de impresión digital, corte láser y fresado.

Hitzaldia / Conferencia

## 23

**URRIA/OCTUBRE,** 19:30

**Materia-Informazioa**
**Materia-Información**
Hirikilabs
Gonbidatua/Invitado: Abelardo Gil-Fournier

Hitzaldi honetan geure bizitzetan eta mundua begiratzeko dugun moduan presente dauden materia-informazioa harremanaren ondorioetako batzuetan barnako ibilbidea egingo dugu.

En esta charla haremos un recorrido por algunas de las consecuencias de la relación materia-información presentes en nuestras vidas y en nuestra forma de mirar el mundo.

Lantegia / Taller

## 22/23/24

**URRIA/OCTUBRE,** 15:30 - 19:30

**Openreflex: 3Dan inprimatutako argazki kamera baten muntaketa**
**Openreflex: Construcción de una cámara de fotos impresa en 3D**
Hirikilabs
Gonbidatua/Invitada: Aitziber Eizaguirre (Tumaker)
Izenematea/Inscripción: www.tabakalera.eu

Lantegi honetan bi mundu zirraragarri uztartuko ditugu: 3D inprimaketa eta argazkigintza. Reflex kamera erabat funtzionala inprimatuko dugu, lomografia erako argazkiak ateratzeko aukera emango diguna.

En este taller vamos a fusionar dos mundos apasionantes como son la impresión 3D y la fotografía, imprimiendo una cámara reflex completamente funcional con la que podremos sacar fotografías de estilo lomográfico.

Lantegia / Taller

## 22/23/24

**URRIA/OCTUBRE,** 22/23 (16:00 - 20:00), 24 (16:00 - 18:00)

**Trapusonora - Arropa soinudunak**
**Trapusonora - Ropas sonoras**
Hirikilabs
Gonbidatuak/Invitados: Donosti Knit, TrucaRec
Izenematea/Inscripción: www.arteleku.net

*Trapusonora* arropa eta ehunezko osagarriak birziklatu eta aldatzeko tailer irekia da. Txatarra, joku elektronikoak eta bigarren eskuko arropa eraldatzen dugu soinu-tresna bilakatzeko.

*Trapusonora* es un taller abierto de reciclaje y modificación de ropa y complementos textiles, donde transformaremos chatarra, juguetes electrónicos y ropa de segunda mano en instrumentos sonoros.

Instalazioa / Instalación

## 15 > 23

**URRIA/OCTUBRE** **AZAROA/NOVIEMBRE**

**"Gure Hitzak"**
Ganbara KMK
Jaime de los Ríos, Daniel Tirado, Iñaki Rifaterra

Hiru artista donostiarrek sortutako instalazio honek teknologia berriak eta fabrikazio digitala grabatu-teknika tradizionalekin uztartzen ditu Mikel Laboaren musika irudi, grabatu eta eskultura bilakatzeko.

La instalación, creada por 3 artistas donostiarras, mezcla nuevas tecnologías y fabricación digital con técnicas tradicionales de grabado para transmutar la música de Mikel Laboa a imágenes, grabado y escultura.



Haurrentzat lantegia / Taller infantil

## 16

**AZAROA/NOVIEMBRE,** 12:30 / 18:00
(iraupena/duración: 60')

**3x2 Bota egin behar al dugu?**
**3x2 ¿Estamos que lo tiramos?**
Hirikilabs
Gonbidatuak/Invitados: Amonatela

Haur txikienentzat pentsatutako lantegia da hau. Jolas dinamiken bitartez dagoeneko erabiltzen ez ditugun arropak eraldatuko ditugu eta ehunen hacker txiki bilakatuko gara! Zergatik bota SORTU badezakegu? Zure arropa zaharrak ekartzea gomendatzen dizugu. Osagarri harrigarriekin aterako zara!

Este taller está pensado para l@s más pequeñ@s. A través de dinámicas de juego, transformaremos ropas que ya no usamos y ¡nos convertiremos en pequeñ@s hackers textiles! ¿Por qué tenemos que tirar cuando podemos CREAR? Es recomendable que traigas tus ropas vieja ¡Saldrás con unos complementos increíbles!

## 24

**URRIA/OCTUBRE,** 19:30 - 21:00

**Tokiko proiektuen aurkezpena**
**Presentación de proyectos locales**
Hirikilabs

Maker edo DIY proiektu bat duzu esku artean? Artisautza beste ikuspegi batekin jorratzen duzu? Zure proiektu artistikoetan birziklatzea eta teknologia uztartzen dituzu? Fabrikazio digitala erabiltzen duzu gauza zoragarriak sortzeko?

Tokiko proiektuak aurkezteko saio bat antolatu nahi dugu, eskuekin gauza arraroak egiten dituen jendea eta DIY, teknologia, sormena eta jakintza tradizionalak erabiltzen dituena ezagutu eta ezagutarazteko. Bidali zure proposamena **hirikilabs@tabakalera.eu** helbidera.

¿Tienes un proyecto maker o DIY?, ¿trabajas la artesanía desde otra perspectiva?, ¿combinas el reciclaje y la tecnología en tus proyectos artísticos?, ¿utilizas la fabricación digital para crear cosas maravillosas?

Queremos organizar una velada con presentación de proyectos locales, de gente que hace cosas extrañas con las manos, utilizando el DIY, la tecnología, la creatividad y los saberes tradicionales. Envíanos tus propuestas a **hirikilabs@tabakalera.eu**

## 16

**AZAROA/NOVIEMBRE,** 10:00 - 20:00

**AZOKA: Artisau berriak**
**FERIA: Nuevos artesanos**
Hirikilabs

**Eginzaleak!** azokan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu. Azaroaren 16an, egun guztian zehar, zure proiektuak, sorkuntzak, asmakizunak eta diseinuak aurkezteko edo jardueraren bat proposatzeko espazio bat egokituko dugu.

Suhiltzaileen eraikin zaharreko beheko solairuan izango da azoka eta haurrentzako lantegiak, janaria eta musika ere eskainiko dira bertan. Bidali zure proposamenak **hirikilabs@tabakalera.eu** helbidera.

Te invitamos a participar en la feria **Eginzaleak!** Durante todo el día 16 de noviembre vamos a habilitar un espacio en el que puedas mostrar tus proyectos, creaciones, invenciones y diseños o proponernos alguna actividad.

La feria sucederá en la planta baja del edificio de Bomberos y estará acompañada de talleres infantiles, comida y música. Envíanos tus propuestas a **hirikilabs@tabakalera.eu**

TABAKALERA